

2024ko UZTAILA

BERMEON ZER?

Uztailak 3tik 5era
Jazzber

Uztailak 12
Gorefest

Uztailak 21
Baztarreko jaiak

Uztailak 22
Madalenak

BERMEOKO OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO UDAL INSTITUTUAREKIN LANKIDETZAN DIHARDUTEN ENPRESEI ESKERRAK

Enpresari eta enpresa laguntzaile horiek:

Bermeoko Udalak eta OLHUI Bermeo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko irakasleen taldeak eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, gure ikasleei praktikak zuen enpresetan egiteko aukera emateagatik. Zuen lankidetzeta funtsezkoa da gure ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako.

Praktiketan zehar gure ikasleek, esperientzia duten profesionalekin ikasteaz gain, trebetasun berriak eskuratzeko eta ezagutza teorikoak ingurune erreal batean aplikatzeko aukera izan dute. Zuen lanak, ikasle bakoitzaren garapen indibidualean ez ezik, gure hezkuntza komunitatea oro har sendotzen ere laguntzen du.

Beste behin ere, eskerrik asko zuen enpresetako ateak irekitzeagatik eta belaunaldi berrien prestakuntzan parte aktibo izateagatik.

Etorkizunean zuen lankidetzeta izaten jarraitzea espero dugu.

Adeitasunez, jaso agur bat.



MEKANIKA ARLOKO ENPRESAK:

Luberrri Motor Sport (Bermeo)
Eurorepar Esparru Tailerra (Bermeo)
Sollube Tailerra (Bermeo)
GNG Gernika Tailerra (Gernika)
Zatiko Tailerra (Gernika)
Vulcanizados Gorra (Gernika)
Esku Onak Berria (Gernika)
Auto Kramer Gernika (Gernika)
Pirauto (Gernika)



OSTALARITZAKO ENPRESAK:

Egoitz Alai Zaharren Egoitza (Bermeo)
Kai Alde Jatetxea (Bermeo)
Portuondo Jatetxea (Mundaka)
Kamiñoko Erretegia (Muruetza)
Sancti Spiritus Zaharren Egoitza (Bermeo)



02 Martitzena
Gizarte eta
Kultura Etxean
08:00-10:00 eta
15:00-17:00

IKASTAROA
PUNTO
SEGURUAREN
SAREA



Bermeoko indarkeria matxisten aurkako puntu seguruaren sarea sortzeko formakuntza merkatarientzat. Formakuntzan parte hartu izanaren agiria emongo da.

Izena emoteko: 688 638 448/ berdintasuna@bermeo.eus.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

03 Eguaztena
04 Eguena
04 Barikua
Bermeoko Kafe
05 Antzokian
20:30ean

BERMEOKO XXVI. JAZZALDIA

JAZZBER

Doan

Uztailak 3: Victor de Diego Group

Uztailak 4: Seada Quartet

Uztailak 5: Flen



Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta JizzJazz kultur taldea**

Laguntzailea: **Oizmendi telebista**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza.

04 Eguena
Nestor
Basterretxea
aretoan
17:00etan

HITZALDIAK

Nestor Basterretxearen
Mendeurrena ospatzeko
hitzaldia

Hizlaria: Ismael Manterola, Arte Historiako irakaslea, Arte Ederren fakultatean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



Gizarte eta
Kultura
Etxean
19:00-21:00

LUR GOZOren esperientzia
ezagutzeko hitzaldia; sorrera,
bilakaera...

Hizlaria: Lur Gozo, Urdaibaiko herritarren ekimena.

Antolatzailea: **Ura Gara talde ekologista**

BERMEOKO XXVI. JAZZALDIA

JAZZBER

2024 UZTAILAK 3-5

UZTAILAK 3
VICTOR DE DIEGO GROUP

UZTAILAK 4
SEADA QUARTET

UZTAILAK 5
FLEN

BERMEOKO KAFE ANTZOKIAN
20:30EAN

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEA

BABESLEA

BERMEOKO
UDALA

jizzjazz^{KT}

OIZMENDI
TELEBISTA

Bizkaia
foru aldundia
diputacion foral

06 Zapatua
Lameran
09:00etan

KIROLAK
SERRATS ALDAPA
XTREM BIKE
MARATHON

Bike luzea: 75 km

Bike laburra: 45 km

Izen-emotea: serratsaldapaxtrem.com

Txapelketako izen-emoteetatik ateratako zati bat Bizkaiko Elikagaien Bankuari emongo deusie.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Matxixako T.K.T.**



10 Eguaztena
Lameran
19:00etan

KALE ANTZERKIA
HORTZMUGA "Agurea,
urpekaria eta itsasoa"

Sinopsia: Itsasoak alkar ezagutzen ez daberen bi pertsona alkartuko dauz, izenik bako leku baten. Zer esan ez dakiela, alkar laguntzen eta euren buruak erreskatatzen ikasiko dabe. Ulises Agureak urteak daroaz itsasora botatako hondakin guztiak batzen, ulertzen ez dauan zibilizazio konsumista eta suntsitzaitetik urrun eta objektu horreei bigarren bitza bat emoten. Felix Urpekaria, itsasoko erronka zentzubakoenak gauzatzeagaitik, ezaguna da sare sozialetan eta ez da mugikorraren pantailatik haratago ikusteko gai. Ikasketa personalean eta tolerantzian oinarritutako abentura, familia osoarentzat eta umorez josia. Bigarren aukerei, itsasorako hondakin-isurketei eta adinbakoek sare sozialetan daukien esposizino arriskutsuari buruzko istorioa da. Funtsean, gizatarragoak izateko ikuskizuna.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Laguntzailea: **Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila**



12 Barikua

Nestor
Basterretxea
aretoan



FANTASIA ETA BELDURREZKO ZINEMALDIA

GOREFEST 2024

20:30ean: film laburren emonaldia.

- NAP (Javier Chavanel)
- 4 ANGELITOS (Julio Martí Zahonero)
- HADO (Rubi Rock)
- CAVA (Jandro)
- PISANKA (Jorge Yúdice)
- LA MASIA (Victor Catalá)
- TU REPARTIDORA, ROSA (Guillermo Tirado & Daniel Tirado)
- NUDO (Herminio Cardiel)
- A TONTAS Y A LOCAS (Markel Goikoetxea)
- RED VELVET (Marc González)
- METODO ZOMBIE (Pablo Olewski)
- SILURO, LA BESTIA DEL EBRO (Jordi Romero)

23:15ean: filma

- CERDITA (Carlota Pereda)
- Sarrera: 5 €

Antolatzailea: **Spookypheria Productions**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

13 Zapatua



Lameran
20:30ean



OMENALDIA

Josu, hamaika borrokatan itxasargidxe!

Josu Unanue Astorekari omenaldia Mendi martxa, txikienentzako txokoa Motx pailazoagaz, ekitaldia Goiko Plazan, kalejira eta bertso bazkaria Taraskan, 15 euroan. Izena non emon kartelen bidez jakinarazoko da.

Antolatzaileak: **L.A.B, Ernai eta Sortu.**

DANTZA

Alkartasuna Dantza

Taldeko Urteko Ekitaldia

Kalejira Lameran hasiko da, porturantz jarraituko dau eta Lameran amaituko da. Dantzariakz batera egongo dira Bermeoko Erraldoien Konpartsaokoak eta Kankinkabara Txistu Taldekoak.

Antolatzailea: **Alkartasuna Dantza Taldea**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

14 **Domeka**
Areneko
kiroldegian
Goizez

EKITALDIA

BUSTI ZAITEZ

Esklerosi anizkoitzaren aldeko ekimena.
Antolatzailea: **Esklerosi Anizkoitzaren**
Euskadiko Fundazioa



Mañu
auzoan

JAIAK

ARRANOTEGI eta MAÑU AUZOETAKO JAIAK

12, barikua

19:30: Txupinazoa
20:00: Mus txapelketa

13, zapatua

11:00: Paella txapelketarako izen-emotea
12:30-13:30: KIETB erraldoi txikien erakustaldia, dantzaldia eta tailerrak
13:30: Paellak aurkeztea
16:00-18:00: Umeentzako gaztelu puzgarria
19:00: Paellen sari banaketa
20:00-22:00: JOSEPA KALE KALE taldeagaz erromeria

16, martitzena

KARMEN EGUNA
11:30: Meza nagusia
12:30: Umeentzako jolasak
19:00: Meza
19:30: Herri kirolak
19:00-21:00: Umeentzako gaztelu puzgarria
Trikitilariak egun guztian zehar

17, eguaztena

KARMEN BIGARREN EGUNA
11:30: Herriko hilen aldeko meza
20:00: Roberto eta Idoia trikitilariak eta makailoa gura dauenarentzat
21:00: Zaldi probak
Ondoren: Zaldi proben sari banaketa, nekazaritza-turismoan
egonaldiaren zozketa eta jaien amaiera

Antolatzaileak: **Arranotegi auzoa eta Mañu auzoko Jai Batzordea**
Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

16 Martitzena
Demiku
Jubilatuen
Elkartean
18:00etan

EKITALDIA

Eskoba txapelketa

Antolatzailea: **Demiku Jubilatuen Elkarte**

17 Eguaztena
Goiko Plazan
20:00etan

KALEKO ZINEA

'MOMIAK' (Euskeraz, 88')

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



18 Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
09:00etan

EKITALDIA

Osoko Bilkura

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

19 Barikua
Bermeoko
Kafe Antzokiko
terrazan
20:00etan

MUSIKA

Jon Fresco eta
Ikasleen Konboa

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**



20 Zapatua
Lamerako
geltokian
07:45ean

URTEERA

Ezpeleta eta
Pasai San Juanera

Informazio gehiago: Demiku Jubilatuen Elkartean.

Antolatzailea: **Demiku Jubilatuen Elkarte**



EKITALDIA

Gaztelugatxeko kalaren garbiketa
boluntariorza jardunaldia

09:00etan: Ongietorria. Proiektuaren aurkezpena Bermeoko Udalaren eta Lurgai Fundazioaren aldetik eta materialaren banaketa.

09:10ean: Biotopoaren berezitasunari buruzko hitzaldia, eta hondakinak batzeko jarraibideak. Taldeetan banatu, eta bilketarako azalpenak emongo dira.

13:30ean: Parte hartzaileentzako jan-arin bat Eneperiko aparkalekuan. Izena emoteko: info@lurgai.org / 946 57 61 10 / 606 141 837

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Laguntzaileak: **Lurgai Fundazioa eta Herri Babesa**

20 **Zapatua**
Artza frontoian
20:00etan

PILOTA FESTIBALA

III. BERMEO HIRIA INPESCA-ATUNLO

Binaka:

Larrazabal-Morgaetxebarria/Alberdi II-Iztueta
Artola-Mariezkurrena II/Laso-Albisu

Sarrera salmenta: uztailaren 15etik 19ra leihatilan bertan
18:00etatik 19:00etara

*Antolatzaileak: **Bermeoko Udala, Inpesca eta Artza pilota alkartea***



21 **Domeka**

JAIAK

MADALEN BEZPERA: BAZTARRE KALEKO JAIAK

BAZTARREN

10:00 - 11:00: Txokolatadea

11:00etan: Umeentzako ikuskizuna ADABAKI Bapatean zirko taldea

Ostean: umeentzako jolasak

19:30ean: Kankinkabara txistu taldearen kalejira

Ondoren: Kanta Kanta Lorue taldearen kalejira, 19:30ean Goiko
Plazatik urtenda. Baztarren egingo dabe geldialdia.

22:00etatik aurrera: Rock kontzertuak

*Antolatzaileak: **Baztarreko auzo alkartea eta Bermeoko Udala***



MADALEN EGUNA

Goizean: Kalejirea Kankinkabara txistu taldeagaz Alde Zaharrean

11:45: Udalbatza Sabino Arana enparantzan batuko da eta porturantz joango da Kankinkabara Txistu Taldeagaz kalejiran.

Txistulariek Madalen zortzikoa joko dabe.

12:00: Itsasontzietara igo, Izarora joateko.

Ondoren, ikurrina eta Bermeoko bandera jaso Izaron eta gero teilea jaurti uretara.



12:30etik 15:00etara: TABERNA IBILTARIA Bermeoko herriko kaleetan.

13:30ak inguruan: Elantxobera heldu eta Alkartasuna dantza taldekoek ohorezko aurrekua egingo deutsee agintariei (Bermeo, Elantxobe eta Mundakako alkateei) Elantxobeko plazan, Kankinkabara txistu taldeagaz.

17:30: Udalbatzak Elantxobetik urten Mundakara joateko.

19:30: Bermeora heldu eta Udalbatza Goiko Plazarantz igoko da "Betijai" fanfarreagaz, banderak altxatu eta aurreku eta zabaletakoak egiteko.

Ondoren: "Betijai" fanfarreagaz beherakadea San Migeleko eskaileretaraino

20:00-00:00: Puntu Morea Portuzarrean

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Etorri Udalbatzagaz Madalen egunean!

- Zozketan parte hartzeko uztaillaren 1etik 12ra arte (14:00etara arte) izena emon behar da Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez www.bermeo.eus edo Berhaz bulegoan (Ertzilla kalea 6-8). Ordutegia: astelehenetik barikura, 08:00-14:30

- Izena emoteko 18 urte euki eta Bermeen erroldatuta egon behar da.

- Banaka edo bikoteka emon daiteke izena.

- Aurreko urteetan joan diranek ezin izango dabe parte hartu.

Zozketa uztaillaren 16an egingo da eta zerrenda udalaren webgunean (www.bermeo.eus) argitaratuko da uztaillaren 18an.

22 **Astelehena**
Bermeoko Kafe
Antzokian
00:00-07:00

MUSIKA

DGABANNA

Sarrerak (15€ +gg): www.bermeokokafeantzokia.com

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**

23 **Martitzena**
Lameran
uztailaren
31ra arte

KALE ERAKUSKETEAK

**Artearen Ibilbidea BBK V:
Haurtzaroa artean**

Arte Eder Museoaren erakusketearen hasikerea.

Antolatzaileak: **Arte Ederretako Museoa eta BBK**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



24 **Eguaztena**
Irakaskintza
kalean
17:30- 19:00

ZIRKUA

ZIRKU TAILER IREKIA:
Zirku-teknikak persona
guztiei hurbiltzeko:

Haur txikien txokoa, malabarrak, orekak,
aereoak, etab.

19:00etan

IKUSKIZUNA "ZIRKOTEKE"

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



25 **Eguena**
Goiko Plazan
09:00- 20:00

AZOKATXOA

Merkatu Txikia:
Bigarren Eskuko Merkatua

Birziklatu, berrerabili, aldatu, oparitu... Urtekerea eta bizia emon sasoi
baten erositako gauzei.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Haitz Nagusije auzo alkartea**

25 Eguena
Olatua
eskulturatik
09:00etan

NESTOR BASTERRETXEAREN IBILBIDEA

URMUGAREN URTANTA ITSASOA, MENDIAK ETA MUSIKA

Nestor Basterretxearen jaiotzaren mendeurrenaren harira, artistaren lanetatik ibilbidea. Bermeotik hasi eta Jatarainoko ibilbidea egingo da.

Antolatzailea: **Urmuga Kultura Elkarte**




OINEZKO GUNERA SARTZEKO baimena barrizatu dozu?



UZTAILAREN 5a da horretarako azken eguna!

Gogoratu egun horretatik aurrera, baimena barriztu ez dabenei isunak ailegatuko jakezela.



IKASKETA GELA

Gizarte eta Kultura Etxean,
17:00etatik 21:00etara.



DEMIKU JUBILATUEN ALKARTEA

Astelehen eta eguenetan
Bingo 19:00etan
Demiku NagusienTxokoan

KZ GUNEA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Uztailaren 1etik 12ra: 11:00-13:00. "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi" (gaztelaniaz). 20 ordu.
Uztailaren 15ean: 11:00-13:00. "Google Traductor. Testuak eta web orriak itzuli" (gaztelaniaz). 2 ordu.

IT TXARTELAZ ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Uztailaren 10ean: 09:00-11:00
Uztailaren 15ean: 09:00-11:00

Zubiaur tar Kepa 26-28 · 1. solairuan (udal-azokan)
Tel.: 944033325 · www.kzgunea.eus · tutor.bermeo@kzgunea.net

Udako Jarduerak

- EKAINAK 25: **KAYAK**
- EKAINAK 27: **MENDI IBILIBIDEA**
- UZTAILAK 2: **BIG PADDLE**
- UZTAILAK 4: **OREKA ETA MALABARRAK**
- UZTAILAK 9: **KAYAK**
- UZTAILAK 11: **ESKALADA**
- UZTAILAK 16: **BIG PADDLE**
- UZTAILAK 18: **LINEAKO PATINAK**

Udako Liburutegia

Uztailaren 1etik 30era bitartean **TALAN**

ORDUTEGIA:

Astelehenak: 16:00-19:00
Martitzenetik barikura: 11:00-14:00/16:00-19:00
Zapatuak: 11:00-14:30

Umeentzako tailerrak be egongo dira barikuetan; ez da beharrezkoa izena emotea.

ARTE SORTZAILEA / ESKULAN DIBERTIGARRIAK /
BIRZIKLA TAILERRA / IPUINETAKO PERTSONAIAK



ERAKUSKETAK

Gizarte eta Kultura Etxean Jaietako kartel finalistak aukeratzea

Botoa emoteko aukera egongo da uztaillaren 8tik 16ra
Info+: www.bermeo.eus

Frantziskotarren Klaustroan JOSE ANGEL LASA “-N,-Z, -KIN, -RANTZ”

Eskulturen erakusketa.

Ordutegia: barikuak 18:00-20:00

zapatuak 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

domekak 12:00-14:00

Bisita bereziak egiteko:

abengoa9@gmail.com

605 71 64 62. Urrira arte.



Lameran

ARTEAREN IBILBIDEA BBK V: HAURTZAROA ARTEAN

Uztaillaren 23tik 29ra

Imajinatu daigun barrea kutsakorra dan mundu bat, fantasia mugarik bakoa eta egun baktotxa abentura bat. Haurtzaroaren mundua da, askotan itzultzeko jomuga izatea gura doguna edo akaso lurperatu gura doguna. Gure oroitzenetan, haurren bihotzak baino ulertu ezin dauzan emozioek eta gertaerek egiten dabe habia.

Arteak, sortzaileen historiak iragazitako begiradaren bidez, uniberso hori guztia ispilu lez islatzeko gaitasun miragarria dauka, eta gogorazoten deusku haurtzaroa ez dala bakarrik lehenaldiko puntu bat, gure identitatearen zati intrinseko bat be bada eta. Ganera, galdutako sinpletasuna estimatzen, irudimena baloratzen eta nostalgia besarkatzen erakusten deusku, denpora pasau arren izan ginan haurra ez dala guztiz desagertzen gogorazota

Antolatzaileak: BBK eta Bilboko Arte Ederren Museoa

Laguntzailea: Bermeoko Udala

San Frantzisko elizan

UNAI MANGAS

“SANTU MARGOEN ERAKUSKETA”

Pintura erakusketa.

Uztaillaren 1etik 13ra arte

Astegunak: 11:00-13:00

Zapatuak: 11:00-13:00 eta 16:00-18:00.



Berhaz Bulegoan

BERHAZ BULEGOKO XLI. ERAKUSKETEA

Maite Anduiza MAI

“KOLOREAK BAI edo EZ”

Mihise ganeko akrilikoak.

Formatu ezberdinak.

mtanduiza@gmail.com

Facebook: [MaiAnduiza](https://www.facebook.com/mai_pinturitas)

Instagram: [mai_pinturitas](https://www.instagram.com/mai_pinturitas)

Udako ordutegia:

Astelehenetik barikura 08:00 - 14:30



Arrantzaleen Museoa

“Portu Zaharra”

Uztaila. Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 19:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30

Astelehenetan itxita.

Portuaren eta bertako jendearen bilakaera kameran ikuspuntutik,

toki guztietako argazkilariek erretratatu dabe Bermeoko portua, 1877tik gaur egunera arte, eta gaur egun, barriro be, Bermeoko bizi erdigune bihurtu da.

“Portu Zaharra” erakusketak Iñaki

Markaidaren bilketa, hobekuntza digitala eta lanak biltzen dauz Bermeo eta bertoko biztanleak bere azken 150 urteko historian.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa:

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus / www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa



2024/25 kirol denboraldia

URA ikastaroak

Igeriketa eskola

3 eta 14 urte bitarteko umeentzako eta gazteentzako.

seniorren igeriketa

hastapena/ hobekuntza/ senior training

egokitzapen eta mantentze fisikoa uretan

akuafit/ akuarunning/ kardioaletak



LURRA ikastaroak

60+

Pilates


Hipopresiboak

Bizkar osasuntsua

Fit Balance

Konbi (power pump + balance)


GazteFit



BERMEOKO NAZIOARTEKO XXXIX. MUSIKA ASTEA

Abuztuan...

- Euskal liburu eta disko azoka
- Nazinoarteko musika astea
- Nazinoarteko folklore jaialdia
- Galerna Eguna
- San Roke Eguna
- San Juan Degoilatu eguna



Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

